ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2025eko azaroaren 14a, ostirala • 130 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Kultura, kirol eta gizarte arloko dirulaguntzen deialdia

Korporazio honek, 2025eko urriaren 8an balio osoz egindako osoko bilkuran, Gaubeako udalerriko kultura, kirol eta gizarte arloko dirulaguntzetarako deialdia eta oinarri arautzaileak onetsi zituen. Gai horren gainean hartutako erabakia betez, ALHAOn argitaratzen dira aipatutako oinarriak, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko.

Gaubea, 2025eko azaroaren 6a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO

Kultura, kirol eta gizarte arloko dirulaguntzen esleipena arautzen duten oinarriak

2025eko deialdia

Lehenengoa. Xedea

Deialdi honen helburua da Gaubean 2025ean kirol, kultura eta gizarte arloko jarduerak antolatzeko, garatzeko eta gauzatzeko dirulaguntzak arautzea. Udalak arlo horietan egiten dituen jardueren osagarri edo ordezkoak direnei eta Gaubeako udalerriarentzat interesgarriak direnei emango zaizkie dirulaguntzak.

Emandako laguntzak erakunde onuradunaren jarduera guztiak finantzatzeko izango dira. Horiek horrela, 2025ean aurreikusitako jarduera guztiak jaso behar ditu aurkeztutako aurrekontuak.

Bigarrena. Onuradunak

Elkarte eta erakunde pribatuak, baldin eta irabazteko xederik gabe eratu badira; kirol, kultura edo gizarte jarduerak egiten badituzte; Gaubean badute egoitza, edo jarduera bertan garatzen badute; legez eratu badira, eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Erakundeen Erregistroan erroldatuta badaude.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak eman eta, hala badagokio, ordaintzeko, eskaera egitean abian den itzulketa edo zehapen prozedura orok bukatuta egon beharko du, baldin eta izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta abiarazi baditu prozedurok Gaubeako Udalak.

Hirugarrena. Onuradunek dirulaguntza edo laguntza lortzeko bete beharreko baldintzak eta horiek betetzen direla egiaztatzeko era

Ezinbestekoa izango da eskaera eta oinarri hauetan eskatutako gainerako agiriak adierazten den eran eta epean aurkeztea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Laugarrena. Dirulaguntza jaso dezaketen programak eta jarduerak

Epigrafe hauetako programa eta jarduerek jaso dezakete dirulaguntza:

4.1. Kultura programak eta jarduerak, hezkuntzakoak, aisialdiko prestakuntzakoak, kirol eta jolasekoak (herritar guztientzako diren eta kirola erregulartasunez egitea sustatzen duten lehiarik gabeko jarduerak, txapelketa tradizionalak, lehiadun jarduera irekiak eta abar), talde babesgabeek edo gizartetik kanpo geratzeko arriskuan daudenek parte hartzea bultzatu edo bermatuko duten programak eta ekintzak.

4.2. Aste edo jardunaldi tematikoak (mintzaldiak, hitzaldiak…).

4.3. Gaubeako jarduera soziokultural tradizionaleko programak eta jarduerak, betiere herriko jaietan sartzen ez badira.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Gaubeako Udalak eskaintzen dituenen paraleloak diren kultura, kirol edo gizarte proiektuak, ez bada udalak eskaintzen dituenen osagarri direla; hori dagokion batzordeak zehaztu beharko du.

b) Udalak beste aurrekontu partida batzuen kontura ekarpen ekonomikoak egin dizkien jarduerak.

c) Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

Bosgarrena. Agiriak

Deialdi honetan araututako laguntzak lortu nahi dituzten elkarte edo erakundeek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

— Dirulaguntza eskaera, oinarri hauei erantsirik doan I eranskinaren arabera egindakoa.

— Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia, elkartearen ordezkari den aldetik, eta elkartearen IFK.

— Elkarte edo erakundearen estatutuen fotokopia eta Elkarte eta Erakundeen Erregistroan legez eratuta eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duten agiriak. Elkarte edo erakunderen batek lehendik aurkeztuta baditu, ez ditu berriro eman behar, salbu eta aurkezpen dataz geroztik aldaketaren bat egin badu.

— 2025ean egin beharreko jardueren programa. Honako hauek azaldu behar dira banan-banan:

a) Jardueren eta hartzaileen deskribapena.

b) Gauzatze egutegia.

c) Jarduerak eragindako gastu eta diru sarreren aurrekontu xehatua; beste administrazio batzuei eskatutako dirulaguntzak; elkarte edo erakundearen ekarpena; Gaubeako Udalari eskatutako zenbatekoa, eta bestelako diru sarrerak.

— Zerga zorrik ez duela eta Gizarte Segurantzaren ordainketetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria.

— Eskatzailea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria.

— Zinpeko aitorpena, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan jasotzen dituen onuradun izateko debekuen eraginpean ez egotearena, elkarte edo erakundearen arduradunak sinatua (II. eranskina).

Gaubeako Udalak datu eta azalpenak eskatu ahal izango ditu aurkeztutako agirien inguruan, deialdiaren gaineko ebazpena hartu ahal izateko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Seigarrena. Aurkeztutako agirietan egindako akatsen zuzenketa

Dirulaguntza eskaerak ez badira aurkezten behar bezala beteta eta oinarri hauetan eskatutako agiri guztiak eta osagarriak dituztela, erakunde eskatzaileari errekerimendua egingo zaio hutsak zuzen ditzan edo falta diren aginduzko agiriak aurkez ditzan gehienez 10 eguneko epe ezin luzatuzkoan; hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela esan nahiko du, horretarako ebazpena eman ondoren, hala xedatzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan, 68. artikuluarekin lotuta.

Zazpigarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Eskabideak eta bosgarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko 2025eko abenduaren 31ra arteko epea egongo da.

Salbuespen gisa, xedatutako epetik kanpo aurkeztutako eskaerei dirulaguntzak eman ahal izango zaizkie, baldin eta horretarako dirurik badago, eta Gaubeako Udalaren helburu publikoetarako interesekoak badira.

Agiri guztiak Gaubeako Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar dira (Jesus Ginea arkitektoa kalea 46, 01426, Uribarri Gaubea), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutako eran.

Dirulaguntza hauek jasotzeko eskaerak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta espresuki onestea.

Dirulaguntza hauek ezin izango dituzte eskuratu Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigorrik izan dutenek.

Zortzigarrena. Dirulaguntza emateko prozedura eta irizpideak

Informazio Batzorde Orokorrak proposatuta, lehiaketa bidez emango ditu dirulaguntzak alkate-lehendakariak. Proposamen hori egiteko, batzordeak egokitzat jotzen duen aholkularitza teknikoa eskatu ahal izango du.

Informazio batzordeak ezin izango du inola ere proposatu oinarri arautzaileetan ezarritakoa betetzen ez duten dirulaguntzak ematea.

Jarduerak aurrera eramateko elkarte edo erakundeek izan dezaketen defizitaren zati bat estaltzeko izango dira Gaubeako Udalak emango dituen dirulaguntzak, udalaren ustez dirulaguntza jasotzeko modukoak ez diren gastuak aurrekontutik kendu ondoren.

Irizpide hauek kontuan hartuta banatuko da urteko diru esleipen erabilgarria:

— Proiektuaren hedadura (jarduera egiteak zenbat pertsonari ekarriko dion onura): 10 puntu, gehienez.

— Proiektuaren originaltasuna eta berritasuna: 10 puntu, gehienez.

— Jarduerak udalerriaren errealitateari egokitzea: 10 puntu, gehienez.

— Entitate eskatzaileak bere jarduera eremuan erakutsi duen jarraitzeko gaitasuna eta egonkortasuna: 10 puntu, gehienez.

— Autofinantzaketa maila: 5 puntu, gehienez.

— Beste erakunde pribatu batzuen diru ekarpena: 5 puntu, gehienez.

Bederatzigarrena. Laguntzen muga orokorrak

Deialdi honetan araututako laguntzak ezetsi edo mugatu egin ahal izango dira, esleitutako hornidura gainditzen bada.

Eskaerek, guztira, udal aurrekontuan xedatutako diru hornidura gainditzen badute, Informazio Batzordeak banatuko du hornidura, 8 artikuluan jasotako irizpideen arabera erabakitzen duen moduan.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hamargarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa onuradun bakoitzeko

Onuradun bakoitzari eman dakiokeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 50 izango da, baina udalaren ustetan garrantzi berezia duen ekimena izanez gero, ehuneko 100era handitu daiteke, baina ezingo da inolaz ere izan 500,00 euro baino gehiago, aurkezten diren jardueren bolumena edozein dela ere.

Hamaikagarrena. Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bateragarri izatea

Deialdi honetan ezartzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu berarekin eman ditzakeen beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta horrek ez badu gehiegizko finantzaketarik sortzen. Halakorik gertatuz gero, hau da, jasotako laguntzen edo dirulaguntzen guztizko batura jarduerarako onesten den aurrekontua baino gehiago bada, gehiegizko zenbatekoa kenduko zaio dirulaguntzaren zenbatekoari.

Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da izan, inolaz ere, bakarrik zein beste batzuekin batera, erakunde onuradunak antolatutako ekitaldien programarako aurreikusitako kostua baino gehiago.

Hamabigarrena. Ebazteko epea eta ebazpenik ezaren ondorioak

Ebazpena emateko epea hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Ebazpena epe horretan ematen eta jakinarazten ez bada, eskaera ezetsitzat jo beharko da.

Hamahirugarrena. Dirulaguntza justifikatzeko epea

Diruz lagundutako jarduera edo jardueren programa gauzatzeko izandako gastuak justifikatzeko agiriak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 31n amaituko da.

Hamalaugarrena. Onuradunak helburua bete duela eta emandako diruari eman zaion erabilera justifikatzeko era

Dirulaguntzaren erakunde onuradunek hauek aurkeztuz justifikatu beharko dute, legezko epean, jasotako zenbatekoa:

• Diruz lagundutako jarduera bakoitzak eragindako gastuak, behar bezala justifikatuta. Gastu horiek eskaerarekin batera hasieran aurkeztutako gastu aurrekontuaren zenbateko osoaren adinakoak izan behar dute. Horretarako, jatorrizko fakturak edo ordainagiriak aurkeztu beharko dira, edo horien kopia konpultsatuak.

Gastuak frogatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

– Jaulkitzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANa edo IFZ.

– Hartzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANa edo IFZ.

– Gastuaren xedea.

– Data.

Aurrekontu osoa justifikatzen ez bada, dirulaguntza murriztu egingo da, gauzatutako gastu txikiagoaren proportzioan.

• Diruz lagundutako jardueraren diru sarreren eta gastuen balantzea.

• Diruz lagundutako jardueren azalpen memoria, emaitzaren balorazioa adierazita (datak, lekuak, iraunaldia, eta onuradun kopurua).

• Zinpeko adierazpena, organismo publiko edo pribaturen batek xede bererako dirulaguntza edo laguntzarik eman izanari buruz, III. edo IV. eranskinean jasotzen denaren arabera.

Dirulaguntzaren onuradunek ez dute zertan berriro aurkeztu eskaerarekin batera aurkeztutako agiriak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hamabosgarrena. Dirulaguntza ordaintzea

Gastuak justifikatu ondoren eta ebazpen honetan ezarritako baldintzak betetzen badira ordainduko da dirulaguntza, hala badagokio, banku transferentzia eginda erakundeak eskaera orrian emandako kontu zenbakian.

Hamaseigarrena. Dirulaguntza aurreratzeko aukera, horretarako era eta horrelakoetan onuradunek aurkeztu beharreko bermeak

Ez dago aukerarik emandako dirulaguntzaren aurrerakinak jasotzeko.

Hamazazpigarrena. Laguntza emateko ebazpena aldatzea eragin dezaketen inguruabarrak

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrelakoetan, diruz lagundutako gastuen eta diru sarreren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira eta, nolanahi ere, edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak edo laguntzak lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egingo da.

Behin dirulaguntza onetsi eta gero, dirulaguntza emateko oinarri hartu ziren benetako egoerek dirulaguntza hori aldatu beharra badakarte, Informazio Batzordeak arrazoituta eta hala proposatuta, dirulaguntza alda dezake alkate–lehendakariak, dagokion ebazpenaren bidez.

Hemezortzigarrena. Dirulaguntza itzultzea

Onuradunak jasotako dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko du honako egoera hauek ematen direnean: dirulaguntza eman eta eskatu zen helburu berezirako ez erabiltzea, dirulaguntzaren arrazoi izan zen jarduketa ez gauzatzea, adierazi ziren helburu berezietarako aplikazioa ez justifikatzea, edo, oro har, oinarri hauetan edo dirulaguntza onartzeko ebazpenean ezarritako betebeharrak ez betetzea. Hala gertatzen denean, onuradunak onartu zaion eta jaso duen zenbatekoa itzuli beharko du, bai eta dirulaguntzaren ordainketa egin zenetik aplikagarri diren legezko interesak ere.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, bai bere aldetik, bai beste batzuekin batera, diruz lagundutako jarduerak egiten duena baino gehiago bada, baliogabetu egingo da eta, hala dagokionean, soberakina itzuli egingo da.

Hemeretzigarrena. Dirua itzultzeko prozedura

Dirulaguntzaren baliogabetze eta itzultze prozedura izapidetzean, onuradunaren eskubidea bermatuko da entzuna izateko, bai eta egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztuz bere jarduna defendatzekoa ere.

Hogeigarrena. Erakunde onuradunen betebeharrak

Oinarri hauek arauturiko dirulaguntzen erakunde eta elkarte onuradunek honako betebehar hauek bete beharko dituzte:

— Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hamar egunetan onuradunak dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu duela esan nahiko du.

— Dirulaguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.

— Beren gain hartzea dena delako programa eta/edo jardueraren ondoriozko erantzukizunak, eta orobat indarrean dagoen legeriak programa eta/edo jarduera horiek gauzatzeko galdegiten dituen baimenak eskatzeko ardura.

— Gaubeako Udalaren Kontuhartzailetzari egiaztatze edo finantza kontroleko jarduerak egiten uztea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik jaso bada, Gaubeako Udalari jakinaraztea.

— Jarduera egin dela egiaztatzea Gaubeako Udalari, bai eta dirulaguntza ematean ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen direla ere.

— Programaren balantze ekonomikoa ematea.

— Dirulaguntzaren xede den programan edozein aldaketa egin nahi bada, idatziz jakinaraztea, aldaketa horiek egiteko Gaubeako Udalaren berariazko onespena behar baita.

— Diruz lagundu duen proiektuaren jarraipena egiteko Udalari eskatzen dituen agiriak ematea eta emandako dirulaguntzaren inguruko eskakizun orori erantzutea.

— Gaubeako Udaleko Kontuhartzailetzak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatutako informazio guztia ematea.

— Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta dirulaguntzen udal ordenantzak ezarritako betebeharrak betetzea.

Hogeita batgarrena. Dirulaguntzetarako kreditua

Dirulaguntza hauek emateko, 4.500,00 euro erabiliko dira guztira, Gaubeako Udalaren 2025eko ekitaldirako 337.481000 "Irabazteko xederik gabeko erakundeen jarduerak" partidatik.

Hogeita bigarrena. Informazioa eta aholkularitza

Gaubeako Udalak informazioa, laguntza, argibideak eta aholkuak emango dizkie deialdi honen barruan dirulaguntza eskaera aurkezten duten erakunde eta elkarteei, hala eskatzen badute.

Hogeita hirugarrena. Errekurtsoak

Deialdi honen aurka zein honen ondorioz sortutako administrazio egintza ororen aurka egin dezakete interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

Hogeita laugarrena. Azken klausula

Oinarri hauetan arautu ez den edozertarako, hauetan xedatutakoari jarraituko zaio: Gaubeako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra (2006ko urtarrilaren 27ko ALHAO, 11. zk.); Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, onesten duena Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Gaubeako Udalak ebatziko du.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

I. eranskina

Gizarte, kirol eta kultur arloko jarduerak gauzatzeko dirulaguntza eskaera. 2025. urtea

Nik,…….....….....jaunak/andreak, (NAN zenbakia:..... Helbidea:.....Telefonoa: ……),.....erakundearen/elkartearen ordezkaria naizen aldetik (Helbidea:.....Telefonoa:..... Faxa:…….. Helbide elektronikoa:.....), honako hau

Adierazten dut

Gaubeako udalerrian 2025ean kultura, kirol eta gizarte arloko jarduerak gauzatzeko dirulaguntzen deialdiaren eta oinarrien berri izan dudala, eta honako hau

Eskatzen dut

Lehenengoa.....….. euroko dirulaguntza eman dakidala, honako gastu hauek finantzatzeko:

Jardueraren izena	Aurrekontua	Eskatutako zenbatekoa
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....

Eskatzen den dirulaguntza, guztira .....

Horretarako, deialdiaren 5. oinarrian adierazitako agiri guztiak aurkezten ditut, baita horiek egia direla ziurtatu ere.

Bigarrena. Ordezkatzen dudan erakundearen kontu zenbaki honetan sar dadila ematen zaion dirulaguntza:

Erakundea:.....

Kontu korronte edo libreta zenbakia:.....

Titularra:.....

NANa:.....

…….....…., 2025eko.....….aren.....….(a).

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua).

Gaubeako Udaleko alkate-lehendakariari.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

II. eranskina
Zinpeko adierazpena

..... jaunak/andreak, ...(r)en ordezkaritzan,

Hau adierazten du zinpean:

Ordezkatzen duen erakundea/elkartea ez dagoela Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2 eta 3. apartatuetan ezarritako egoeretako batean ere; hori adierazten du 2020an kultura, kirol eta gizarte arloko jarduerak burutzeko Gaubeako Udalak egindako dirulaguntza deialdiari begira.

Eta behar den tokian hala ager dadin sinatzen du.

……....……, 2025eko.....….aren.....……(a).

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua).

III. eranskina
(Beste laguntzarik jaso ez bada)

..... jaunak/andreak, ...(r)en ordezkaritzan,

Hau adierazten du zinpean:

Ordezkatzen duen erakundeak/elkarteak ez duela dirulaguntzarik edo laguntzarik jaso inolako erakunde publiko edo pribaturengandik, Gaubeako Udalak egindako deialdiaren barruan dirulaguntza eskatzen duen programako jardueretako bakar bat ere finantzatzeko. Deialdi hori 2025eko ……....……aren ….....…(e)ko ALHAOn (…..... zenbakia) eman zen argitara.

……....……, 2025eko.....….aren.....……(a).

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua).

IV. eranskina
(Beste laguntzarik jaso bada)

..... jaunak/andreak, ...(r)en ordezkaritzan,

Hau adierazten du zinpean:

Ordezkatzen duen erakundeak/elkarteak.....euroko laguntza jaso duela.....(r)engandik (adierazi zein erakunde edo organismo den), Gaubeako Udalari eskatutako dirulaguntzaren xede den programan jasotako ondorengo jarduera finantzatzeko. Deialdi hori 2025eko.....aren.....……(e) ko ALHAOn (…..... zenbakia) eman zen argitara.

Diruz lagundutako jarduera:

.....

……....……, 2025eko.....….aren.....……(a).

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua).

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2025.11.14 06:57:34 Z